



**Arartekoaren 2023S-1587-22 ebazpena, 2023ko irailaren 5koa. Honen bidez Gasteizko Udalari iradokitzen zaio berrius dezala herritar batek gizarte-larrialdietarako laguntza-eskari baten ukapenaren gainean aurkeztu duen errekurtsua ezesten duen ebazpena.**

### Aurrekariak

1-. Herritar batek kexa bat jarri zuen erakunde honetan, ezetsi egin zelako Gasteizko Udalak dekretatutako gizarte-larrialdietarako laguntzen (GLL) eskari bat ukatzen zuen ebazpenaren aurrean aurkeztu zuen errekurtsua.

Ukapen horren ondorioz, kexagileak 2022ko lehen seihilekoko GLLak jasotzeari utzi zion; zehazki, hilean 181,90 euro, 6 hilabetez (hau da, guztira 1.091,40 euro). Bere bizikidetz-unitatea berak eta bere alabak osatzen zuten (azken horrek une hartan 17 urte zituen).

Kexagileak Arartekoari jakinarazi zionez, Udalak 2022ko ekainaren 30eko ebazpenaren bidez ezetsi zuen GLLren (kontzeptua: "necesidades primarias: gastos farmacéuticos") ukapenaren aurrean aurkeztutako aukerako berraztertze errekurtsua. Eskaria ukatzeko argudiatutako arrazoia, apirilaren 22ko hasierako ukapen-ebazpenean jasotakoaren arabera, honako hau zen: "no cumplir requisitos: medios económicos por ingresos."

Eskatzaileak 2022ko ekainaren 9an aurkeztu zuen aukerako berraztertze errekurtsua eta, bertan adierazi zuenez, bere egoera ekonomikoan ez zen aldaketarik egon aurreko urteetako egoeraren aldean. Azaldu zuenez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular izanik, 2021eko apirilean Lanbideren abisu bat jaso zuen, zeinaren bidez bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren (BGDS) eskaria aurkezteko eskatu baitzitzaion. Eskaria eginda, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN) 2022ko martxoaren 26an emandako ebazpenaren bidez, prestazio hori onartu zitzaion, eskaria egin zuen egunetik zegozkion atzerapenekin. Zehazki, 2022ko martxoaren amaieran, GSINek guztira 8.545,80 euro ordaindu zituen interesdunaren kontuan.

Lanbidek, interesdunak diru-sarrera hori jaso zuela jakitean, diru-sarrera gisa zenbatetsi zuen BGDSren onuradun gisa emandako aldi. Hala, honako neurri hauek hartu zituen 2022ko apirilaren 22ko ebazpenaren bidez:



- alde batetik, titularraren DSBEren zenbatekoa berrikusi eta murriztu zuen, eta, horren arabera, hilean 120,78 eurokoa bihurtu zen.
- bestalde, Lanbidek adierazi zuen nahitaezkoa zela azken hileko DSBEren zioz oker jasotako prestazioak itzultzea, hau da, guztira 671,72 euro, martxoan kexagileak DSBE osoa eta BGDS osoa jaso zituela kontuan hartuta.
- azkenik, BGDSren atzerapenen zioz jasotako zenbatekoa ezohiko diru-sarrerera bat balitz bezala zenbatetsi zuen, zenbateko hori 60 hilerokotan zatituta, eta DSBEren zioz zegokion zenbatekoa murriztuz; ondorioz, 2022ko apiriletik aurrera, kexagileari hilean 134,09 euro gutxiago sartu zizkion.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak ematean, interesdunaren gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoa murriztu egin zen hurrengo bost urteetarako.

Kexagileak, aukerako berraztertze errekurtsoarekin batera, Lanbidek DSBEren berrikuspenari buruz emandako ebazpena erantsi zuen.

Hala ere, Gasteizko Udalak errekurtso hori ezetsi zuen, 2022ko ekainaren 30eko ebazpenaren bidez, kontuan hartuta eskariaren unean ez zuela betetzen bitarteko ekonomikorik ez edukitzearen baldintza.

Zehazki, ebazpenaren arrazoien artean honako hau adierazten zen:

“(…) se acredita que la ahora recurrente percibió en abril de 2022 la cantidad de 8.545, 80 euros en concepto de atrasos de IMV. A diferencia de lo alegado por la interesada en su recurso, estos ingresos no se consideran indebidos, y por lo tanto no surge la obligación de devolución, sino que el criterio adoptado por Lanbide es considerarlo como un ingreso atípico a computar en 60 meses, de acuerdo con lo establecido en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la garantía de ingresos y para la inclusión social. **El mismo criterio ha adoptado esta corporación en relación a la AES<sup>1</sup>.**

Con lo cual, teniendo en cuenta lo establecido en el párrafo anterior, la ahora recurrente no cumple con el requisito para ser perceptor de ayudas de emergencia social establecido en el artículo 5 e) del Decreto 4/2011, de 18 de enero, por los que se regulan las ayudas de emergencia social, es decir, carecer de ingresos suficientes.”

---

<sup>1</sup> Guk jarri diogu enfasia.

Azkenik, garrantzitsua da adieraztea kexaren sustatzaileak gastu horietarako GLLen beste eskari bat aurkeztu zuela 2022ko bigarren seihilekorako, eta eskari hori Gasteizko Udalaren 2022ko ekainaren 29ko ebazpenean onartu zela.

**2-.** Kexagileak azaldutako gertaerak ezagututa, Arartekoak informazioa eskatu zion Udalari, errekursoaren ebazpenean agertzen ziren arrazoiei buruz; zehazki, honako gai hauei buruz:

- a) Zergatik uste duzun ez dituela betetzen GLLen onuradun izateko baldintzak, araudiak ezarritako mugak gainditzeagatik.
- b) Zergatik ez den onetsi interesdunaren aukerako berraztertze errekurtsoa, hurrengo seihilekoan GLLak onartu ondoren eta egoera bera izanik.
- c) Zer iritzi duzun helarazi dizkizudan gogoetei buruz, hots, ez da diru-sarreretan aldaketarik izan, baizik eta eduki ekonomikoko eskubide bat, hau da, bizitzeko gutxieneko errenta, baliatzeko betebeharra betetzearen ondorioa da, bai eta eskubide hori eskatzeko ebazpena berandu ematearen ondorioa ere.
- d) Zer iritzi duzun gogoeta hobi buruz: ondorio bat egon da kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioan bizitzeko gutxieneko errenta gisa atzerapen horiek jasotzeagatik; xeheki, atzerapenak ezohiko diru-sarrera gisa egotzi ondoren, gutxitu egin da azken prestazioa horrengatik jasotzen duen zenbateko.
- e) Azaldutako gertakariekin lotuta, interesgarritzat jotzen duzun beste edozein inguruabar.

**3-.** Gasteizko Udalak Arartekoari txosten baten bidez erantzun zion. Bertan, hitzez hitz eman zuen kexagileak aurkeztu zuen aukerako berraztertze errekurtsoren ebazpena, kexa izapidetu baino lehen ebatzi zena. Hori dela eta, Arartekoak informazioa eskatu zuen bigarren aldiz, bertan planteatzen ziren gaiei erantzun zehatza emateko errepikatuz.

**4-.** Orainsu, Udalak Arartekoari erantzun dio, Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko zuzendariaren txostenaren bidez:

“a) Tal y como se ha informado en la reclamación anterior, así como en la resolución del recurso potestativo de reposición presentado por xxx, el motivo por el cual se consideró que en ese momento no cumplía los requisitos para ser beneficiaria de AES por superar los límites establecidos

por la normativa responde al criterio adoptado por Lanbide, que considera como ingreso atípico la cuantía percibida por Dña. xxx en abril de 2022 en concepto de atrasos de IMV. Los ingresos atípicos se computan en 60 meses de acuerdo con lo establecido en la Ley 18/2008 de 23 de diciembre para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.

Con el fin de actuar de forma coherente y unificar criterios de actuación entre Administraciones, esta corporación adoptó el mismo criterio en relación con las AES.

Añadido a esta circunstancia, **en el momento de la resolución de la solicitud de la renovación de las AES Necesidades Primarias, Lanbide no había regulado aún la cuantía que le correspondía percibir a Dña. xxx en concepto de RGI tras haberle sido reconocido el IMV<sup>2</sup>.** Por tanto, Dña. xxx era titular y beneficiaria en ese momento de 722,28 euros mensuales en concepto de IMV y de 915,65 euros mensuales en concepto de RGI y PCV.

Por ello, en ese momento, superaba el límite de ingresos mensuales para ser beneficiaria de AES.

**b) Los motivos por los que no se ha estimado el recurso potestativo de reposición de la interesada son los mismos que los expuestos en el apartado anterior.**

c) En entrevista mantenida en el Servicio Social de Base con Dña. xxx **el 25 de mayo de 2022**, esta informó de que había acudido a Lanbide y ya se había procedido a regular el cobro de las prestaciones quedando, en ese momento, de la siguiente manera: 722,28 euros de IMV y 120,78 euros de la RGI que no percibirá realmente hasta mayo de 2027 al objeto de devolver los ingresos indebidamente percibidos tras el reconocimiento del IMV.

Así pues, **se resuelve la concesión de la nueva solicitud de AES presentada por Dña. xxxx el mismo día de la citada entrevista por haber desaparecido el motivo de la denegación anterior**, dado que ya no supera los límites económicos mensuales establecidos para el acceso a las AES.

d) La consecuencia del cumplimiento de la obligación de hacer valer el derecho de contenido económico del IMV sí supuso una modificación de sus ingresos en el momento en que se resolvió la denegación de las AES, aplicando siempre la legislación vigente así como el criterio adoptado por Lanbide.

---

<sup>2</sup> Azpimarra Arartekoarena da.

Los ingresos totales computados para Dña. xxx y su Unidad de Convivencia **ascendían a 1660,02 euros, siendo el tope mensual establecido en la Orden de las AES de 1506,54 euros.**

e) Tanto la RGI como las AES se rigen por la misma Ley, la 18/2008 de 23 de diciembre para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, por lo que se entiende que los criterios tanto para una prestación como para la otra son, en su mayoría comunes. En el caso que nos ocupa, **la denegación fue producto del incumplimiento del requisito económico en el momento de la solicitud.**

d) Las actuaciones practicadas se entienden justificadas en arreglo a la legislación vigente.”

Gasteizko Udalaren eskutik jasotako informazioa aztertu ondoren, Arartekoak honako gogoeta hauek egin ditu:

### Gogoetak

1-. Kexa-espedita honek Gasteizko Udalaren jardura aztertzen du, beharizan medikoak estaltzeko GLL eskari bat izapidetzeko orduan; zehazki, interesdunak 2022ko urtarrilaren eta ekainaren artean egiztatu zituen botika-gastuak estaltzeko (guztira, 1.091,40 euro).

Gizarte-larrialdietarako laguntzak aldizkakoak ez diren beharrei erantzuteko dira, dirulaguntza izaera dute, eta gastu espezifikokoak –ohikoak edo apartekoak– ordaindu ahal izateko nahikoa baliabiderik ez duten pertsonen zuzenduta daude, behar horiei erantzutea beharrezkoa den aldetik gizarte-bazterketa prebenitzeko, saihesteko eta arintzeko (urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretua, 2. artikulua).

Udalak eskaria ukatzeko arrazoia, ukapenaren ebazpenean deskribatzen denez, honako hau izan zen: eskatzaileak, ebazpena baino aste batzuk lehenago, 2022ko martxoan, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kontzeptuan atzerapen batzuk jaso zituen, 2020ko martxoan aurkeztu zuen eskariaren zioz. Udalaren interpretazioaren arabera, atzerapen horiei esker, prestazioen titularrak, GLL eskatu zuen unean nahiz eskari hori ebatzi zen unean, baliabide aski zuen bere oinarritzko beharrezkoak estaltzeko, osasunarekin lotutako gastuak barne.

Baliabide aski ez izatearen baldintzaren betearazpena zehazten duten arauak, hain zuzen ere, honako manu hauetan ezartzen dira: abenduaren 23ko 18/2008 Legea (18/2008 Legea), maiatzaren 25eko 147/2011 Dekretua (147/2010 Dekretua) – indarrean, eskaria ebatzi zen unean–, eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretua.

Hala, bada, baliabide aski ez edukitzeari dagokionez, 18/2008 Legearen 46 e) artikulua honako hau xedatzen du:

“(...) e) Lege honen 44.2 artikuluan jasotako berariazko gastuei aurre egiteko behar beste baliabide ez izatea, baldin eta horiek haien bizikidetz-unitateko kideei eragiten badiete; hala, ez dagoela behar beste baliabide ulertuko da ondoren azaltzen diren baldintzak betetzen direnean:

– Azken urtean edo prestazioen bidez aurre egin nahi zaien gastuek hartzen duten edo hartuko duten denboraldian, errendimenduak, kapitulu honen 2. atalean ezarritakoaren arabera zehaztuak, ez izatea etxebizitza-unitateko kideen kopuruaren arabera legokiokoen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errentaren gehienezko zenbatekoaren % 150 baino handiagoak. Hori horrela izanik ere, eta erregelamendu bidez zehaztuko diren kasuetan, beste pertsona batzuen errendimenduak ere aintzat hartu ahalko dira, hain zuzen ere eskatzailearekin etxebizitza edo bizitoki berean bizi eta prestazioen onuradun izan litezkeen gainerako pertsonen errendimenduak.”

Bestalde, 4/2011 Dekretuaren arabera, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Dekretua aldatzeko urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuaren bidez sartutako aldaketaren ostean, eskatzailearen eta haren bizikidetz-unitateko gainerako kideen baliabideak zehazteko, **baliabide guztiak zenbatuko dira**. Zehazki, 13. artikulua honako hau dio:

“1.– Eskatzailearen, bere bizikidetz-unitateko gainerako kideen, eta, hala badagokio, 5.1.e) artikuluan aurreikusitako prestazioen onuradun izan daitezkeen gainerako pertsonen hileko baliabideak zehazteko, **diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 47/2010 Dekretuaren III. kapituluaren 2., 3. eta 4. ataletan aurreikusitakoa aplikatuko da, artikulua honetan aurreikusitako salbuespenak salbu.**

(...)

3.– **Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako laguntzetatik datozen gainerako etekinak sarrera modura zenbatuko dira; alegia, hiru iturri hauetako edozeinetatik datozenak: Diru-sarrerak Bermatzeko Errentatik, Etxebizitza-gastuetarako Laguntza Osagarritik eta etxebizitza legez okupatzeko eskubide subjektiboa betetzeko ematen den Etxebizitzatarako Laguntza Ekonomikotik.**

4.– Hilabeteko baliabideak aurreko paragrafoetan jartzen duen moduan zehaztu ondoren, urteko baliabideak edo dagokion denbora-tarterako baliabideak zehaztu nahi badira –laguntza gastu jakin baterako eskatuko baitzen, eta gastu hori denbora-tarte batean egitekoa izango baita–, **biderketa bat egin beharko da: hilabeteko baliabide horiek bider aipatutako gastuak zenbat hilabetetarako diren.**”

Jakina denez, DSBEren zenbatekoa autonomia-erkidegoko aurrekontuen legean zehazten da. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legeak, seigarren xedapen gehigarrian, honako hau ezartzen du: “(...) 2022ko ekitaldian, diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa, edozein modalitatetan, eta orobat guraso bakarreko bizikidetz-unitateentzako hileko subsidio osagarriaren zenbatekoa 2021eko ekitaldian aplikatutakoak izango dira % 3ko portzentajearen gehituta.”

Lanbidek bere webgunean adierazi ditu 2022an DSBE gisa jaso daitezkeen gehieneko zenbatekoak<sup>3</sup>; **kexagilearen bizikidetz-unitatearen kasuan (bi pertsonak osatzen dute), diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa hilean 934,05 eurokoa litzateke.**

Ondorioz, aztergai dugun kasu honetan, kontuan hartuta kexagileak eskatu zituen GLLak 2022ko urtarriletik ekainera bitarteko gastu medikoak estaltzeko zirela, sei hilabete horietan izan zituen diru-sarrerak zenbatetsi beharko genituzke. Berez, aldi horretan DSBE eta EPOren ziozko ohiko diru-sarrerak izan zituen urtarrilean, otsailean, martxoan eta apirilean (guztira, 915,65 euro); BGDSren ziozko diru-sarrerak ere izan zituen apiriletik aurrera (hilean 722,28 euro), eta, horiez gain, kontuan hartu beharko lirateke bigarren prestazio horren zioz izan zituen atzerapenen ziozko diru-sarrerak (zehazki, 8.545,80 euro).

Hala ere, hurrengo gogoetan garatuko den bezala, kexagilearen diru-sarrera guztien zenbaketa, berez, ez zen GLL eskaria ebazteko orduan agertzen zen bezalakoa. Izan ere, Lanbidek oraindik ez zion eman, araudiaren arabera, interesdunaren aparteko diru-sarrerari eman behar zion tratamendua.

<sup>3</sup> Taula osoa, hemen: <https://www.lanbide.euskadi.eus/lanbide-hasiera/>.

Ondareari dagokionez, GLLak eskuratzeko ondare-mugak 18/2008 Legean zehazten dira; zehazki, 46.f) artikuluan. Horren arabera, ezingo da gainditu eskatzaileari diru-sarrerak bermatzeko errentaren kontzeptuan urtebetean zehar egokitu ahal zaion zenbatekoa bider lau. Kasu honetan, **44.8834,4 euro izango lirateke bi pertsonak osatutako bizikidetzaren unitatearentzat, hau da, kexagileak jasotako 8.545,80 euroak baino askoz gehiago.**

Horrenbestez, ezingo litzateke ondorioztatu kexagileak, aparteko zenbateko hori jasota ere, GLLren eskatzaile batek onuradun izateko eduki ditzakeen diru-sarrerei buruz araudian ezartzen den muga gainditzen duenik.

**2-** Aurreko gogoetan adierazitakoaren arabera, kexagileak 2022ko martxoan jaso zituen hileko diru-sarrerak DSBE, EPO, BGDS eta azken horren atzerapenen ziozkoak ziren. Berez, diru-sarrera horiek gainditu egiten zituzten bestealdi batzuetan eskuratutakoak. Hala ere, aurreratu den gisan, horrek ez zuen adierazten kexagilearen benetako gaitasun ekonomikoa. Izan ere, GLL eskaria ukatzea ebatzi zen unean, Lanbidek oraindik ez zuen erabaki zein tratamendu emango zion aparteko diru-sarrera horri. Ondorioz, zeuzkan diru-sarreraren itxura ez zetorren bat kexagileak benetan zeukan gaitasun ekonomikoarekin.

Zehazki, Gasteizko Udalak honako hau defendatu du bere txostenean: “en el momento de la resolución de la solicitud de la renovación de las AES Necesidades Primarias, Lanbide no había regulado aún la cuantía que le correspondía percibir a Dña. xxx en concepto de RGI tras haberle sido reconocido el IMV. Por tanto, Dña. xxx era titular y beneficiaria en ese momento de 722,28 euros mensuales en concepto de IMV y de 915,65 euros mensuales en concepto de RGI y PCV.”

Berez, Gasteizko Udalak GLL eskaria ukatzea erabaki zuenean –apirilaren 22ko ebazpena–, Udalak zekien gauza bakarra zen kexagileak bi prestazio jasotzen zituela eta, gainera, 8.545,80 euro zituela, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren ziozko atzerapenen ondorioz. Oraindik ez zekin zein tratamendu eman behar zion enplegu-erakunde autonomoak diru-sarrera horri. Are gehiago, Udalak kexagilearen GLL eskaria ebatzi eta ukatu zuen egun berean ebatzi zuen Lanbidek aparteko diru-sarrera hori jasotzearen ondoriozko berrikuspen-prozedura.

Hala ere, **Udalak zeukan informazioa bestelakoa zen aukerako berraztertzeo errekurtsioa ebatzi zuen unean.** Gasteizko Udalak Arartekoari igorritako txostenaren arabera, kexagileak 2022ko maiatzaren 25ean jakinarazi zion Udalari zein zen, zehazki, Lanbidek BGDSren zioz jasotako diru-sarrerei emandako tratamendua.



Txosten horri jarraikiz, tokiko administrazioak tratamendu berbera eman nahi izan zion prestazioaren titularrak jaso zuen aparteko diru-sarrerari, hau da, oker jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatu gabe, baizik eta ezohiko diru-sarreraren figura juridikoa aplikatuz.

Erakunde honen ustez, Udalak kexagilearen aparteko diru-sarrerak beste administrazio batean (kasu honetan, Lanbiden) izandako tratamendu juridiko egokia egiaztatu behar zuen. Izan ere, arrazoi horren ondorioz, **kexagileak azkenean ez zuen bere gaitasun ekonomikoan igoerarik izan.**

Horrenbestez, nahiz eta egia den enplegu-erakunde autonomoak ez zuela adierazi diru-sarrera horren ondorioz oker jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra – soilik hilabetean jasotako prestazioetan kobrantza bikoiztearen ondoriozkoak –, jasotako atzerapenak ezohiko diru-sarrera moduan zenbatu izanak ondorio berberak izan ditu interesdunarentzat. Izan ere, une horretatik aurrera, 134,09 euro gutxiago dauzka bere DSBEren nominan.

Erakunde honen ustez, Lanbidek BGDSren kontzeptuan jasotako diru-sarrerei eman behar zien tratamenduaren berri izan zuenean Udalak, aukerako berraztertze errekurtsoaren ebazpena bere lehen erabakia zuzentzeko baliatu behar zuen; izan ere, aukerako berraztertze errekurtsoa tresna baliotsua da iraganeko erabakiak aztertze eta, ebazteko unean dauzkan datu guztien arabera, kexagilearen asmoa egokia den ala ez erabakitzeko.

Horrekin lotuta, Arartekoak hainbat ebazpenetan azpimarratu du dagoen jurisprudentzia. Horren arabera, eginkizun hori errekurtsoak administrazio-bidean berrikustez harago joan da, administrazioari, baliabide horien bidez, baldintzak betetzen ote diren egiaztatze gaitasuna eman baitzaio, ebazteko unean eskura duen dokumentazio guztiarekin.

Hori bat dator **Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salaren jarrerarekin; 2010eko martxoaren 17ko 1228/20109 , Epaian islatua**<sup>4</sup>. Horren bidez, aitortu zen mota guztietako elementuak, egitateak edo dokumentuak gehitzeko zilegitasuna, baldin eta horrekin interes orokorrak hobeto bermatzen dituen erabaki bat hartzea ahalbidetzen den.

---

<sup>4</sup> ECLI:ES:TS:2010:1228. Eskuragarri hemen:  
<https://www.poderjudicial.es/search/TS/openDocument/7aa2eb783af8ffdf/20100331>.

Azalpenen argitasunagatik, haren edukia jaso da, jurisprudentzia-lerro bera jarraitu duten beste epai batzuen artean. Epai horren seigarren oinarri juridikoan, auzitegiak honako hau zehazten du:

“(…) en la resolución judicial recurrida se sostiene una tesis errónea sobre la función de los recursos administrativos, a resultas de la cual no cabría introducir en éstos "elementos nuevos" sobre los que no hubiera podido pronunciarse el órgano que dictó la resolución impugnada. Es errónea la tesis, decimos, y parte de una concepción no aceptable del "carácter revisor" de los recursos administrativos que difiere de la que preside los artículos 107 a 119 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común<sup>5</sup>. **En contra de lo afirmado por la resolución que examinamos, es lícito introducir en los recursos de alzada o de reposición hechos, elementos o documentos nuevos, no recogidos en el expediente originario<sup>6</sup>.** La posibilidad está expresamente prevista en el artículo 112.1 de la Ley 30/1992 (e implícita asimismo en el apartado tercero del artículo 113) y es coherente, por lo demás, con la función propia de estos mecanismos de revisión de la actividad administrativa.

Los recursos administrativos, además de garantía para los administrados, son también un instrumento de control interno de la actividad de la Administración en la que un órgano superior -o el mismo, en reposición- revisa en toda su extensión lo hecho por otro, sin estar necesariamente vinculado al análisis de los meros elementos de hecho o derecho que este último hubiera tenido o podido tener en cuenta. **Lo que se pretende con los recursos es posibilitar una mejor decisión que sirva con objetividad los intereses generales, y ello será tanto más factible cuantos más elementos de juicio se pongan a disposición de quien ha de decidir finalmente sobre la impugnación.**

El órgano que resuelve el recurso no está constreñido por los solos datos presentes en la resolución originaria. **Tras el acuerdo inicial pueden alegarse en vía de recurso administrativo hechos, elementos o documentos de todo tipo, también los de fecha posterior a aquél, si de ellos se deducen consecuencias jurídicas relevantes para la mejor resolución del expediente.** El recurso administrativo, salvados los límites de la congruencia y la imposibilidad de gravar la situación inicial del recurrente (artículo 113 in fine

---

<sup>5</sup> Xedapen hori bera jasotzen da gaur egun 39/2015 Legearen 118. eta 119. artikuluetan.

<sup>6</sup> Azpimarratutakoa Arartekoarena da.

de la Ley 30/1992), permite una reconsideración plena, sin restricciones, del asunto sujeto a revisión. Reconsideración en la que, insistimos, pueden alegar los impugnantes cualesquiera hechos o elementos de juicio, también los que no se pudieron tener en cuenta originariamente pero sean relevantes para la decisión final.”

Gainera, interpretazio judicial hori **bat dator administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren arauketarekin**, zeinak aukera ematen baitio interesdunari, eskariarekin batera, bere eskubidea egiaztatzeko daukan dokumentazio guztia aurkezteko —hala ezarrita dago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 56.3 artikuluan—.

**3-**. Hau da, Arartekoak dioenez, Udalak bere esku zuen, aukerako berraztertze errekurtsoa ebazteko unean, eskatzaileak BGDSren zioz jasotako diru-sarrereri Lanbidek eman zion tratamendua ezagutzeko beharrezko informazioa eta, beraz, errekurtsoa baietsi eta eskatutako laguntza eman behar zuen. Edo gutxienez ez zuen ukatu behar, herritarrak baliabide aski edo aurretik izandakoen bestelakoak zituela argudiatuta.

Gero ere, berriz ere aitortu zitzaionean 2022ko bigarren seihilekorako aurkeztu zuen eskaria, Udalak hauxe interpretatu zuen: Lanbidek aparteko diru-sarrera horri eman zion tratamenduak ez zuela GLLren eskatzailearen gaitasun ekonomikoa igo. Hala, Gasteizko Udalak, 2022ko ekainaren 29ko ebazpenaren bidez, onartu egin zuen kexagileak kontzeptu beragatik eta 2022ko bigarren seihilekorako izapidetutako GLLen eskaria; beraz, baldintzak betetzen dituela iritzi zion Udalak. Halaxe uste izan nuen, nahiz eta errekurtsoa ebazteko unean zegoen inguruabarretako bat bera ere ez aldatu.

Gai horrekin lotuta, Udalak Arartekoari igorritako txostenaren arabera, “Agiri hau sinatu den datan, kexagileak indarrean dauka GLL laguntza (lehen mailako beharrianak, farmazia-gastuak), urte horretako abendura arte, **hura ukatzeko arrazoa desagertu egin delako**”.

**4-**. Ondorioz, kexa-espedita honetan azaldutako gertaerak aztertu ondoren, Arartekoaren ustez, Gasteizko Udalak laguntza ukatzeko baliatu zuen oinarria desegokia izan zen. Izan ere, berez, GLL eskatzailearen gaitasun ekonomikoa ez zen aldatu aurreko urteetako gaitasunarekiko. Prestazio berri bat (bizitzeko gutxieneko diru-sarrera) sartzearen ondoriozko aldaketa bat baino ez zen egon, hasieran Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuaren eta, ondoren, abenduaren 20ko 19/2021 Legearen bidez.



Ebazpen honetan zehar azpimarratu den gisan, eskatutako prestazioa ukatzeko arrazoi bakarra honako hau zen: BGDSren emakida DSBE moduan oker jasotzeagatiko prestazioak itzultzeko modua zehaztea falta zen, 2021eko apirilean eskaria aurkeztu eta hilabete batzuk geroago. GSINek 2022ko martxoan ordaindu zuen aitortutako prestazioa eta, aste batzuk geroago, Lanbidek erabaki zuen ezohiko diru-sarrera moduan zenbatestea eta, beraz, hurrengo 60 hilabeteetan zegokion DSBEren zenbatekoa murriztea.

Ondorioz, kexagilearen gaitasun ekonomikoak ez zuen aldaketa nabarmenik jasan, BGDSren ondorioz jaso zituen diru-sarrerak DSBEren onuradun gisa jasotzen zuen zenbatekotik kentzekoak baitziren. Interpretazio hori bera defendatu zuen Arartekoak kexagileak urteko bigarren seihilekora bideratutako GLL eskaria kontuan hartuta. Halaxe aitortu du dio, hain zuzen ere, Udalak Arartekoari, bere txostenean.

Horrenbestez, Arartekoaren iritziz, Udalak bere erabakia zuzentzeko aukera aprobetxatu behar zuen, antolamendu juridikoak bere esku jartzen duen tresna baten bidez, hau da, aukerako berraztertze errekurtsoaren ebazpenaren bidez, gorago azaldutako argudioen arabera.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## IRADOKIZUNA

Gasteizko Udalak berrius dezala aukerako berraztertze errekurtsoa ezesten duen ebazpena, hura ebazteko unean bazuelako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari eta kexagileak kontzeptu horren zioz jaso behar zituen atzerapenei emandako tratamenduari buruzko informazioa, zeinaren arabera eskatzailearen gaitasun ekonomikoa ez baitzen aldatzen aurreko urteen aldean.

